

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

30 urte eta gero... hau!

N

ola pasatzen den denbora! Atzo bertan izan zela ematen du, baina ez, urte nahikotxo pasatu dira orrialde hauetan berauetan “17 urte eta erdi” izeneko artikuluxka idatzi nuenetik. Hamahiru, hain zuzen, kenketa buruz egitean nahastu ez banaiz.

Berton –berriro nire buruaz fidatuta ari naiz– ordura arte sortzen lagundu nuen eta oraindik ere militatzen dudana gay-mugimenduak egindakoaren eta lortutakoaren balorazio positiboa egiten nuen, ezinbestez. Gaur egungo ikuspegitik are positiboagoa egin beharko nuke, lehenengo bistadizoan behintzat.

Baina lar sakondu gabeko lehenengo bistadizok ez dute normalean errealtatea bere gordintasunean erakusten. Egia da lege mailako erdiespen handiak zertu direla, ezkondu eta adoptatzeko eskubideak barne. Egia da gizartearen parte handi batek begi onez ikusten dituela sexu berekoen arteko harreman afektibo-sexualak, edo ez ditu lehen bezain txarto ikusten... Hori guztia egia da eta, ondorioz, ziur aski, hainbatek pentsa lezake ja dena lortuta dugula, eta beraz, jai eta ospakizunak egitea baino ez ditugula. Adibide onak dira, esaterako, Madrilen eta mendebaldeko beste hiri handitan ekainaren 28aren inguruan egin ohi diren tangatan doazen gizon lirainak eramaten dituzten karrozek beteriko inauteri antzeko kabalgata horiek.



INIGO AZKONA

Esan gabe doa, jakina, niri jaiia eta ospakizuna ederto iruditzen zaizkidala. Hala eta guztiz, jaiak eta ospakizunak ez dute errealtatea ostendu behar. Lortu beharko litzateke errebindikazioa festarekin uztartzea, baina Madrilgoa bezalako ospakizunetan aldarrikapena guztiz urturik gelditzen da ia desagertu arte. Desagertze horretan, nola ez, komunikabideek erruaren parte bat ere badaukate, sensazionalismo eta morbo bila baino ez baitira joaten gehienetan.

“Zer errebindikatu behar da, ordea”, galde-tuko luke, agian, despistaturen batek, aipaturiko lorpenek itsututa edo. Bada, inguruari begiak zabalik eta belarriak erne erreparatuz gero erantzuna etorri berez dator: homofobia nonahi dago, maila apalagoan edo bortitzagotan, etxean, kalean, tabernan... Gurera hurbiltzen diren etorkin gehien gehienak gurea baino matxistagoak eta homofoboagoak diren kulturetatik etortzen dira... Askok urrundu gabe, gainera, European bertan alegia, baditugu homosexualitatea debekatua edota jazarria dagoen eta gay-lesbianak harrikatuak edota poliziak jipoituak izaten diren herrialdeak, Polonia eta

Errusia kasu...

Euskal gay-mugimenduak 30 urte –eta erdi– bete ditu. Askok lortu dugu. Askok falta zaigu. ■

Homofobia nonahi dago. Etorkin gehienak gurea baino matxistagoak diren kulturetatik datoz, European ere baditugu gay-lesbianak harrikatuak diren herrialdeak

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aspaldiko lagunak ikusteko parada izan genuen joan den igandean Baionan. Aukeran, nik pentsatu baino

jende guttiago, nahia eta errealtatea josten ikasi ez dudaren seinale. Eta guztien artean, etxetik urrun halabeharrez bizi beharra duen batekin mintzatu nintzen luze. Bestelako gizarte bat posible genuela sinetsita bere bizia antolatuz, eta egun, adindua, gizarte oiha-nean berezitateko zuhaitzi zenbaiten barna dabilela joan etorrian, hartu emanean, gelditzen zaion denbora jaten eta edaten emekiago, orain artekoa dastatu gabea irentsi izan balu bezala. Esan zidan orotik hori ondorioztatu

EH Bai

nuen. Herrarik gabe mintzo zen, damurik gabe sentitu nuen. Egindakoaz harro, harrokeriarik gabeko ahaleginean murgilduta, zentzuak adi inguratzen gaituena ulertu eta irauli nahian. PNBren ausentziaren mina, bertan lagun ez ukanak biharamunik gabeko sendagai omen zuen, eta inguratzen gintuzten gazte andana pizgarri. Pozgarria izan zitzaidan gure arteko kalaka, bide egin dugula eta bidetik goazena baieztatzeak ematen digun lasatasuna oinarri. Urrun bizitzera kondenatutako bere lagunari orri batean gure berri pare bat igorritz agurtu genion elkarri, bihar etxean izango ditugunaren esperantzaz. Ez dadila luza. ■